



Behatuz ezagutu

Baratza



Maketazio eta marrazkiak: BATUTA

LANDA KOADERNOA

Behatuz ezagutu



Nola duzu izena?

Zenbat urte dituzu?

Nongoa zara?



Naturan hezten

Sortzailea



Landarlan
ingurumen elkarte

Laguntzailea



Babeslea



kutxa
FUNDAZIOA



KOKAPENA

orientazioa: _____

Urteko temperaturen banaketa: _____

Urteko prezipitazioen banaketa: _____

Haize nagusiak: _____

Malda: _____

Harri-ama: _____

MARRAZTU BARATZAREN ESKEMA





LURRA:

propietate fisikoak


Ze koloretakoa da lurra? _____

Zer nolako egitura du? Hautsa, konpaktua, ...

Sustrairik badu? _____

Nola zatikatzen da? Bloke handietan, hauts egiten da ala zatikatze desberdina du? Deskribatu.

Aztertu textura ondoko prozesua jarraituz:



Ba al zenekien lurzoru hareatsuak arinago eta maiztasun gehiagorekin ureztatu behar direla? Egin frogak eta atera zure ondorioak!



LURRA: etate kimikoak

PH-a edo luraren azidotasun maila ezagutzeko, ozpina bota eta burbuilarik ateratzen den behatu:

Ez da ateratzen burbuilarik → Lurzoru azidoa da.

Burbuilak ateratzen dira → Lurzoru basikoa da.

Lurraren materia organiko maila behatzeko ur oxigenatua gehitu eta zer nolako burbuilak ateratzen diren behatu:

Burbuila gutxi → Materia organiko gutxi.

Burbuila handiak → Materia organiko errez ihesgarria.

Burbuila txikiak → Materia organiko atxikia.

Neurri guztietako burbuilak → Materia organikotan lur orekatua.

Landare bakoitzak bere pH optimoa du hazkuntzarako. Gehienek ordea, lurzoruneutroak ala basikoagoak nahiago dituzte. Lurzoru azidoetan elikagai batzuk blokeatuta gelditzen dira, eta landareek ezin dituzte xurgatu.

Borobildu lurrean ikusten dituzun izaki bizidunak. Aurkitu al duzu behean zerrendatutakorik? Lotu irudiarekin:



- Zizareak Kakalardoak Kukurutzak Ipurtsardeak
 Milazangoak Ehunzangoak Armiarma Inurria



Izango al da begi bistaz ikusten ez denik?

LURRA:

propietate biologikoak


Batzuk zatikatzaileak dira, beste batzuk deskonposatzaileak, harrapakaririk ere bada... Ze funtzio betetzen du bakoitzak? Lotu itzazu.

- | | | |
|--------------------|-----------------|---|
| Zatikatzaileak | → → → → → → → → | Izurriteak kontrolatzen dituzte |
| Deskonposatzaileak | → → → → → → → → | Landareak txikitzen dituzte |
| Harrapakariak | → → → → → → → → | Materia organikoa (landare zein animalia hondarrak) landareentzak eskuragarri jartzen dituzte |

Garrantzitsuak al dira baratzeako ekosistemarentzat? Zergatik?



Izurrite eta gaixotasunak



Eta ondoko hauek, ezagutzen? Ba al da horrelakorik baratzean?

Behatu patxadaz landareak. Ea animalia hauek edo beren arrastorik aurkitzen duzun.



BEHATUTAKO ANIMALIA	NON IKUSI DUGU? (lurrean, hostoan zurtoinean, lorean, fruituan)



Taldekatu (argazkietan dituzu pista batzuk):

KALTEGARRIAK



LAGUNTZAILEAK

Zerrendatu al duzu animaliairen bat bi aldeetan? Kaltegarriak noiz bihurtzen dira izurrite?

Zer egin izurrite bat duzunean?



Ezagutzen duzu izurriteez aparte, beste gaixotasunik? Zerk eragiten dituzte?

Biodibertsitatea

Zer egin dezakegu fauna laguntzailea babesteko?

Behatu ingurua: bada belarrik? Luze ala motz?

Ba al da lore-bandarik, sastrakarik inguruan?

Lore-bandek, intsektu laguntzaileei babesa eskaintzeaz gain, polinizatzaileak ere erakartzen dituzte, eta hauek baratzeko fruituak lortzeko ezinbesteko funtzioa betetzen dute!!



Ba al dute beste babeslekurik?

Ba al dago landare laguntzailerik?

Landare laguntzaile bezala ezagutzen dira landaketari era batera edo bestera mesede egiten diotenak (fauna laguntzaileari babesa eskaintzen diotelako, fauna kaltegarria uxatzen dutelako, edo beste edozein mesede egiten diotelako).



Eta asoziaziorik? Hala bada, marraztu. Zer nolako elkarreragina lortzen da?



Asoziazioak landare desberdinen arteko konbinazioak dira, elkarri mesede zein kalte egin diezaioketenak

Beti leku berdinean landatzen al duzue barazki bakoitza?
Ala lekuz aldatzen zoazte?
Zergatik?



ongarriketa

Zerrendatu gertuan dituzuen ongarri mota desberdinak.

Ze jatorri dute? Zenbat denboran egin dira?

Noiz gehitu duzue baratzara?



Baratzeko hondarrak aprobetxatzen al dituzue? Egiten duzue luarrik?

Konposta egiteko, osagai lehorrak eta hezeak behar dira.
 Sailkatu ondorengo osagaiak:



Baratzeko barazki hondarrak

Poda adarrak

Orbel lehorra

Fruta

Papera eta kartoia

Ximaurra

Fruitu lehorren azalak

Tea eta kafe hondarrak

LEHORRAK

HEZEAK

Prozesua ondo eman dadin, beharrezkoa da hezetasun maila zaintzea, bai eta aireztatzea ziurtatzea ere. Horregatik ureztatzen eta nahasten da. Zergatik uste duzu dela hau?


Ikutu duzu konpost pila? Nola sentitzen da? Hotza? Beroa? _____

Zergatik uste duzu dela hau? _____

Ze izaki dabilta konpostatze lanetan? Ikusten al dira? _____

AGENDA

Baratzera joaten
zareten
bakoitzean bete
beharreko orria



Data:

Urtaroa:

Temperatura:

Euria (plubiometroaren neurketa):

Ilargia:

Ze lan ditugu egiteko?

Zer dago jasotzeko? _____

Zer dago landatzeko/ereiteko? (neurtu, planifikatu, egin)

Ba al dago beste lanik? _____

Ureztapenik egin behar da? Zenbat? _____

Ze tresna erabiliko dugu?

Marraztu eta izendatu



BARAZKI FITXA

Barazki honekin ikasturtean zehar egindako lan guztiak hemen erregistratu

Barazkia:

Barietatea:

Ereite/landatze data:

Ereite/landatze kantitatea:

BARATZE-LANAK

Data

Egindako lana

Behaketak

Argazkia/Marrazkia

IZURRITE ETA GAIXOTASUNAK

Data

Gaixotasuna/Izurritea

Tratamendua

Lehenengo bilketa data:

Azken bilketa data:

Bildutako uzta kantitatea:

Alferrik galdutako kantitatea:

oharrak:

Landarearen bizi-zikloa iruditan:

